

GOIZEGI DA

Treanean leihotik begira nabil eta zenbait gauza etorri zaizkit burura. Atzera begiratuz gero, argi dago asko aldatu dela nire ingurua ulertzeko modua.

Korrika egin nahi eta ezin izaten dudan ametsetan bezala, oihu egin nahi nuenean ahots hari zalantzati batek egiten zidan ihes.

Orrialde zuri batean idazten hasteak eragiten duen beldurraren antzera, garraxi egiteak kikilduta uzten ninduen.

Mendiari, itsasoari edo haizeari oihu egiten diotenek inbidiatsu sentiarazten zidaten beti. Denok egin dezakegun zerbait den arren, gutxi batzuek egin zezaketela uste nuen nik.

Garrasi batek sortzen duen askatasun sentsazioa esfortzu handia izaten da sarri. Zergatik beldurtuko ote nintzen ni neu sentitzeko aukera nuenean?

Zergatia azaltzea zailegia izan daiteke baina aldaketa noiz eman zen, aldiz, argi ikusten dut orain. Nire buruan mugitzen diren ideietatik tiraka hasi nintzen. Nire nahiak, sentsazioak eta kezkek elkarbanatu nituen eta barnealdean garrasi lotsati bat azaldu zen. Nire hitzek oihartzuna sortu zuten bat-batean. Agian goizegi da horrelako hausnarketak egiteko. Tren geltokira iritsi naiz.